



Justizia Digitalaren Plana 2021-2026

LABURPEN EXEKUTIBOA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTIZIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Eusko Jaurlaritzarddnen Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2022

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi
Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:

https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0001

Argitaraldia:

1.a, 2022ko urtarrila

Ale-kopurua:

100 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako saila

Internet:

www.euskadi.eus

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Autoretza:

Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritza.

erdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila

Itzulpena:

IZO. IVAPeko Itzulpen Zerbitzu Ofiziala

Inprimaketa:

Eusko Jaurlaritzaren Inprimaketa eta Erreprografia Zerbitzua

L.G.:

LG G 00014-2022

ISBN:

978-84-457-3634-0

978-84-457-3634-0





Edukia

| | |
|---|-----------|
| 1. Justizia Digitalaren Plana 2021-2026 (JDP 2021-2026): sarrera | 3 |
| 1.1. JDP 2021-2026, Eusko Jaurlaritzaren erronka estrategikoa | 3 |
| 1.2. Zertaz ari gara justiziaren digitalizazioa aipatzen dugunean? | 4 |
| 1.3. Zer da JDP 2021-2026? | 6 |
| 1.4. JDP 2021-2026: egitura..... | 7 |
| 2. Testuingurua | 8 |
| 2.1. Euskadi eta digitalizazioa | 8 |
| 2.2. Datozen joera teknologikoak, digitalizazioaren arlokoak..... | 9 |
| 3. COVID: pandemiaren ondorioek justiziaren digitalizazioa azkartuko dute. | 11 |
| 4. Diagnostikoa. AMIA ondorioak | 12 |
| 5. Misioa, 2026 ikuspegia eta printzipioak. | 13 |
| 5.1. JDP 2021-2026ren misioa | 13 |
| 5.2. Ikuspegia: JDP 2021-2026..... | 14 |
| 5.3. JDP 2021-2026ren printzipio eratzailak..... | 15 |
| 5.4. JDP 2021-2026: mapa | 16 |
| 6. JDP 2021-2026ren Ekintza Plana | 17 |
| 6.1. Ildo estrategikoak Deskripzioa eta helburuak | 17 |
| 6.2. Proiektuak ildo estrategikoaren arabaera | 20 |
| 6.3. Ezarpenaren kronograma | 22 |
| 6.4. Adierazleen taula..... | 23 |

| | |
|---|-----------|
| 7. Plan hau kudeatzeko eredia. Gobernantza | 27 |
| 7.1. Kudeaketa-eredua | 27 |
| 7.2. Antolamendu-eredua. Organoak eta proiektu-taldeak..... | 28 |
| 7.3. Jarraipena eta ebaluazioa eta eguneratzeak..... | 31 |



1. Justizia Digitalaren Plana 2021-2026 (JDP 2021-2026): sarrera

1.1. JDP 2021-2026, Eusko Jaurlaritzaren erronka estrategikoa

2020ko urriaren 13an, Gobernu Kontseiluak [XII. legegintzaldiko Gobernu Programa](#), "Euskadi martxan", onartu zuen erabaki baten bidez. Programa horretan jasotzen da Jaurlaritzak zer konpromiso abiarazi behar dituen, herritarrekin XII. legegintzaldirako hartu dituen konpromisoak betetzeko.

*II. ardatzean (Pertsonak: Osasuna, hezkuntza, zerbitzu publikoak, berdintasuna, gizarte- eta kultura-politikak, bizikidetza eta giza eskubideak), 14. jarduketa-arloan (Justizia) honako hau ezartzen da: Justizia Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 16. helburuan sartzen den funtsezko zerbitzu publiko bat da. Eta segitzen du: Orain arte garatutako bidean aurrera egin behar da, gero eta justizia modernoago, arinago, eraginkorrago eta digitalizatuago bat lortzeko xedearekin, Europar Batasuneko justizia-administrazioko sistemarik aurreratuenekin bat etorriz. Horrez gain, justizia hori hurbilagoa eta errestauratiboa izango da eta pertsonengan zentratuko da, bereziki, pertsonarik ahulenengan. Horretarako, konpromiso hau ezartzen da, beste batzuen artean: 98. konpromisoa. Justizia arin, eraginkor eta digitalizatuago baten eraketan aurrera egitea. Eta horren barruan 1. ekinbidea. **Justizia Digitaleko Plan berri bat onestea, epaitegi eta auzitegien digitalizazio integrala lortzeko, espediente judizial elektronikoa amaitzeko, izapide digitalak egoitza judizial elektronikoaren bidez garatzeko eta bideokonferentzien bidez jarduketak sustatzeko.***



1.2. Zertaz ari gara justiziaren digitalizazioa aipatzen dugunean?

Digitalizazioa industria-iraultza berria da. Aurrekoetan bezala eredu energetikoa aldatuko da (petroliotik energia berriztagarrietara), baina oraingo honek badu berezitasun bat: datuak erabiliko dira lehengai. Ordenagailuetan oinarritutako sistema analogikoetatik datuetan oinarritutako sistema digitaletara pasatuko gara. Lan egiteko eta kontsumitzeko moduak aldatuko dira, bai eta kultura eta bizitza pribatua ere, sareetan hedatzen baita. Datuak ongi tratatzeari esker efizientzia, deszentralizazioa, baterako kudeaketa deslokalizatua eta berehalakotasuna hobetu daitezke. Aldiz, horrek guztiak erronkak sortuko dizkio Zuzenbide Estatuari. Eskubide berriak gehitzen direla ziurtatu behar da, Eskubide Digitalen Gutunean ezartzen den bezala. Administrazioa kudeatzeko modua aldatuko da, eta Espainian aukera handiak sortuko dira, bigarrena baita munduan biztanleko telefono adimendun gehien dituzten herrialdeen artean.¹

Justiziaren Efizientziarako Europako Batzordeak (CEPEJ) honela azaltzen du zer den “ziberjustizia” hari buruzko gidalerroetan: justiziaren administrazioan, gatazkak ebazteko prozesuko faseetako batean, gutxienez, auzitegietan zein auzitegietatik kanpo, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) aplikatzen diren egoera guztiak.

CEPEJeko adituen taldearen arabera: Informazioaren teknologiak (IT) tresna eta baliabide egokiak izan daitezke justiziaren administrazioa hobetzeko, herritarrei justizia eta auzitegiak erabiltzea errazteko eta Giza Eskubideen Europako Hitzarmenak (GEEH) 6. artikuluan ezartzen duena betetzeko: justizia eskura edukitzea, inpartzialtasuna, epaileen independentzia, ekitatea eta prozesuen iraupena zentzuzkoa izatea...Justiziaren administrazioa eraginkorra izango bada, ezinbestekoa da informazio-sistema egokia edukitzea. Sistema horrek aukera eman behar luke datuak eta informazio zehatza modu elektronikoan trukatzeko eta auzien eta erabakiak hartzeko prozesuen euskarria izan behar litzateke.²

Halaber, oso egokitzat dugu Joaquín Delgadok Judicial-Tech³ testuan justiziaren “esparru digitalaz” egindako gogoeta; hona:

Zerbait digitala izateak esan nahi du **datuak sortzeko, gordetzeko eta prozesatzeko teknologia erabiltzen dela**.

Horren ildotik, XXI. mendearen lehen laurdeneko herritarra **digitala** da eta eskatzen du zerbitzua azkarra izatea eta zenbait gailu elektronikoren bitartez egin ahal izatea; beraz, nahi du justiziarrekiko harremanak beste erakunde pribatu eta publiko batzuekikoak bezalakoak izatea. Gaur egun digitala ez da eremu zehatz bat; aitzitik, denera hedatu da. Hori kontuan edukita, Herritarrek Justiziaren aurrean dituzten Eskubideen Karta (Diputatuen Kongresuak 2002ko apirilaren 16an onartua) informazioaren gizarteak berekin ekarri dituen

¹ Justicia 2030. MJU

² CEPEJeko adituen taldea. Txostena: *Promoción de la CiberJusticia en España a través de la gestión del cambio y la mejora de la recogida de datos*. 2019ko abendua

³ *Judicial-Tech, el proceso digital y la transformación tecnológica de la justicia. Obtención, tratamiento y protección de datos en la justicia*, Joaquín Delgado Martín, Wolters Kluwer, 2020



beharrizantara egokitu behar litzateke, hain zuzen ere sistema judizialaren eraldaketarekin lotutako beharrizantara. Horrez gainera, auzi-prozesuak erreformatu beharko dira izapide digitaletara moldatzeko.

Eraldaketa digitala da teknologia digitala txertatzea sistema judizialeko arlo guztietan, gatazkak konpontzeko lanak hobeto eta eraginkortasun handiagoarekin egin ahal izateko; horretarako, justiziaren antolamendua aldatzen da, bai eta justizia herritarrekin harremanak izateko modua ere, eta pertsonen eskubideei sortzen zaizkien arriskuak eta berme prozesalak kudeatzen dira. ...

Lehenbizi, eraldaketa honek **justiziaren antolamenduari eta funtzionamenduari** eragiten die, hau da, gatazkak konpontzeko sistemako langileen eta baliabide materialen kudeaketa egokiari, bai erabakia epaile batek hartzen duenean (**Justizia Administrazioa**), bai gatazkak konpontzeko modu alternatiboak (**ADR**) erabiltzen direnean; bi esparru bereizten dira:

- **Harremanak herritarrekin** (front office): herritarren eta justizia sistemaren arteko harremanak errazteko; honek eragin zuzena dauka justiziarako sarbidean
- **Justiziaren barne antolamendua eta funtzionamendua** (back office): sistemaren barneko lanak azkartzeko eta optimizatzeko

Bigarrenik, ondorioak sortzen ditu **prozesu judizialean** bertan (hau da prozesu judiziala: epaile baten erabakiaren mendean jartzen den gatazka bat konpontzeko ondoz ondo egiten diren ekintzen segida).

Justiziaren eraldaketa digitalaren ardatz nagusia herritarra da; eraldaketa honek hiru ezaugarri dauzka:

- justiziaren xedea izatea herritarren beharrizanak asetzea;
- teknologia digitaletan oinarritzea; eta
- pertsonen eskubideak eta berme prozesalak behar bezala errespetatzea..



1.3. Zer da JDP 2021-2026?

Hona plana:

Justizia Sailburuordetzaren
plangintzarako tresna

ragile juridikoekin hausnarketa
egin ondoren

datozen urteetan (2021-2026)
aplikatuko den estrategia
zehazten duena

justiziaren digitalizazioa
bultzatzeko bertan ezarritako ildo
estrategikoen eta proiektuen
bidez

eta justizia zerbitzu publikoa
hobetzeko EAEn



1.4. JDP 2021-2026: egitura

Justiziaren digitalizazioa EAEn: egoera, etorkizuneko joerak eta diagnostikoa


Azaltzen du zertan den egoera eta zein den EAeko justiziaren digitalizazioaren diagnostikoa

Ezarpenaren eta jarraipenaren eredia

Zehazten du nola prestatu den plana eta zer mekanismo aplikatuko diren haren indarraldian kudeaketarako eta jarraipenerako

Ekintza-plana

2021-2026 aldian gauzatu beharreko proiektuen multzoa



Eginkizuna, ikuspegia eta balioak

Plana sortzeko arrazoia eta nola nahi dugun izatea justizia zerbitzua 2026an, proiektuak gauzatu ondoren

Ildo estrategikoak eta helburuak

Planaren egiturako jardun-eremu nagusiak


2. Testuingurua

| JDP 2021-2026 bat dator EAEko gainerako estrategiekin | JDP 2021-2026 Estatuko testuinguruan | JDP 2021-2026 nazioarteko eta Europako testuinguruan |
|--|--|--|
| <ul style="list-style-type: none"> • Justiziaren Plan Estrategikoa (2022-2026) • Euskadiko 2020ko Agenda Digitala Agenda, • Euskadiko Eraldaketa Digitalerako Estrategia 2025 (EEDE2025) • IKTen Plan Estrategikoa (IKTPE) 2021-2024 • Gobernantza, Berrikuntza eta Gobernu Digitaleko Plan Estrategikoa (2030) (prestatzen ari da) • Euskadi Next. Euskadiren Susperraldirako eta Erresilientziarako Programa 2021-2026 | <ul style="list-style-type: none"> • Justicia 2030 • Zerbitzu publikoaren efizientziarako legeen bultzada • Suspertze eta Erresilientziarako Funttsaren kargura finantzatzeko proiektu zehatzak | <ul style="list-style-type: none"> • 2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) • Europa Digitala programa • NextGenerationEU Plana |

2.1. Euskadi eta digitalizazioa

[Ekonomia eta gizarte digitalen indizeak \(DESI\)](#) Europako errendimendu digital orokorra adierazten du, eta jarraipena egiten die EBko herrialdeen lehiakortasun digitalaren aurrerapenari.

EAE zazpigarrena da Europako herrialde aurreratuenen artean.



Iturria: EUROSTAT, EUSTAT, CNMC, SETID, INE, gure galdera-sortak



2.2. Datozen joera teknologikoak, digitalizazioaren arlokoak

| 5G konektagarritasuna ⁴ | Adimen artifiziala ⁵ |
|--|--|
| <p><i>5G teknologia banda zabal mugikorraren belaunaldi berria da; 4G LTE konexioa ordeztzen edo, gutxienez, handitzen du, eta hurrengo urteetako ekonomia eta gizarte digitala eraikitzeko erronka teknologiko estrategikoetako bat da. Teknologia mugikorraren belaunaldi berri horrek aldaketa azkartzea espero da, telekomunikazioetan ez ezik, gizartearen eremu guztietan ere bai; izatez, gailu gehiago konektatzeko, energia gutxiago kontsumitu eta transmisio-abiadura handiagoa eskaintzeko eta komunikazioa gutxiago atzeratzeko (latentzia) gaitasuna du.</i></p> <p><i>Konektagarritasun horrek onura hauek, besteak beste, dakartza berarekin: datuak transmititzeko ahalmen handia mugikortasunean, energia-kontsumo txikia —horrek erraztu egiten du Gauzen Interneta (IoT) zabaltzea—, latentzia txikia —horrek denbora errealeko konektagarritasuna ahalbidetzen du—, sendotasuna, segurtasuna eta erresilientzia —ezinbestekoak misio kritikoa, larrialdiak, garraioa, erabilgarritasunak eta abar komunikatzeko—, edo azpiegiturak partekatzeko erraztasuna, sarearen birtualizazioa eta prozesu-adimenaren deslokalizazioa (Edge Computing).</i></p> | <p><i>Laburbilduta, hauxe da adimen artifiziala: makina batek gizakien gaitasun kognitiboa erreproduzitzea helburu duten zientzien, teorien eta tekniken multzoa. AAk erabiltzen dituen elementu nagusiak honako hauek dira: ikaskuntza automatizatua (machine learning) eta hizkuntza naturalaren tratamendua (natural language processing). Adimen artifizialetan bereizketa hau egiten da: batetik AA «sendoa» dago, arazo espezializatu oso desberdinak bere kabuz testuinguruan jartzeko gauza dena; bestetik AA «ahula» edo «moderatu», domeinu jakin bateko benetako arazoak ebazteko gauza diren sistema adimendunak diseinatzen dituen, hau da, ondo mugatutako arazo zehatzak ebazteko gauza dena.</i></p> <p><i>Beste alde batetik, AAak eratzeko teknika asko daude: sare neuronalak, arauetan oinarritutako sistemak, logika lausoa, ikaskuntza automatikoa, sistema adituak, sistema moldagarriak, algoritmo genetikoak, agente anitzeko sistemak, etab. Termino horiek nahas-mahas erabiltzen dira. AAn gehien erabiltzen den elementuetako bat ikaskuntza automatikoa da (Machine Learning - ML). Horren bidez, eredu matematikoa sortzen da datuetatik abiatuta eta aurretik ezezagunak diren zenbait aldagarri ezarrira; parametroak arian-arian eratzten dira ikaskuntza-fasean, entrenamenduko datu-multzoak erabiliz, lotuta eta sailkatuta; diseinatzaileek hautatzen dituzte ikaskuntza automatikoaren metodoak, egin beharreko atazen arabera, eta horrela hiru kategoria daude: gizakiak gainbegiratutako ikaskuntza, gizakiak gainbegiratzen ez duen ikaskuntza eta hobekuntza bidezko ikaskuntza; gainera, kategoria bakoitzean zenbait metodo erabiltzen dira: sare neuronalak, ikaskuntza sakona, etab.</i></p> |

⁴ Euskadi 2025 Eraldaketa Digitaleko Estrategia. EEDE2025

⁵ Judicial-Tech, el proceso digital y la transformación tecnológica de la justicia. Joaquín Delgado Martín. Sexta parte: Tecnologías emergentes en la justicia. Wolters Kluwer, 2020



| Zibersegurtasuna ⁶ | Cloud soluzioak ⁷ |
|--|---|
| <p>Sareak, gailuak, programak eta datuak erasoez, kalteez edo baimenik gabeko sarrerez babesteko neurriak eta jarduerak sartzen dira zibersegurtasunaren barruan. Ekoizpen-jardueraren digitalizazioa eta, bereziki, sarera konektatu dauden gailuen hazkunde esponentziala bultzatzeak eta garatzeak eraginda, eta ziberdelinkuentearen sofistikazio gero eta handiagoak bultzatuta, behar-beharrezkoa izango da gizartearen eta enpresen segurtasun digitala areagotzea eta babes-tresnak hobetzea.</p> <p>Euskadin Basque Cybersecurity Centre, BCS aipatu behar da; Eusko Jaurlaritzak EAEko zibersegurtasuna sustatzeko ezarritako entitatea da.</p> | <p>Hodeian oinarritutako soluzioek, edo cloud soluzioek, aukera ematen dute informazioa, aplikazioak eta gaitasun teknologikoak nonahitik, malgutasunez eta eskaripean erabiltzeko. Teknologia digitalen bilakaera azkarraren aurrean, hodeiko zerbitzuei esker, enpresek une bakoitzerako egokiak diren baliabide digital aurreratuak erabil ditzakete, inbertsio eta eguneratze teknologikoak egin beharrik gabe</p> <p>Hodeiaren bidez eskaintzen diren zerbitzuak hiru multzo handitan sailkatzen dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • IaaS edo azpiegitura zerbitzu gisa, non hornitzaileek oinarrizko azpiegitura eskaintzen duten erabiltzaileek sistema eragileak edo aplikazioak instalatu ahal izan ditzaten. • PaaS edo plataforma zerbitzu gisa, non bezeroek beren aplikazioak gara eta heda ditzaketen, baina biltegitratze-azpiegituraren edo sareen gainean inolako kontrolik gabe. • SaaS edo softwarea zerbitzu gisa, non soluzio osoak eskaintzen diren, hala nola web-nabigatzaile bidezko posta elektronikoa, erabiltzaileek aplikazioen diseinua kontrolatu gabe eta aplikazioak instalatu behar izan gabe. <p>Cloud zerbitzuen potentziala enpresetan, herritarren artean eta Administrazioan aplika daiteke: mugikortasuna, malgutasuna, produktibitatea, segurtasuna, aurrezpena, azkartasuna...</p> <p>Beste alde batetik, Eusko Jaurlaritzak, EJI Eren bidez, gobernuaren informazioaren teknologiaren zerbitzu guztiak bateratzeko eta azpiegitura teknologikoak berritzeko BATERA proiektua gauzatzen ari da, zerbitzu guztiek cloud eta multitenant arloko gaitasunak izan ditzaten eta eskalagarritasun eta fidagarritasun handiagorako aukera izan dezaten.</p> |

⁶ Euskadi 2025 Eraldaketa Digitaleko Estrategia. EEDE2025

⁷ Euskadi 2025 Eraldaketa Digitaleko Estrategia. EEDE2025



3. COVID: pandemiaren ondorioek justiziaren digitalizazioa azkartuko dute.

Egitura-aldaketa hau gertatzen ari zela, pandemia agertu, eta arazoak sakondu ditu eta are beharrezkoago egin ditu konponbideak. Aldaketa hemen dago, eta helburua da aldametaz baliatzea eta politika publikoen bidez eraldaketa sustatzea, datozen hamarkadetarako egiturak bermatzeko. COVID-19ak ekarri duen egoerak azkartu egin du dagoeneko abian zen eraldaketa-prozesua.

Justiziaren Zerbitzu Publikoa ez da gelditu eraldaketa horretatik kanpo. Batetik, gatazkak aldatu dira trantsizioan dagoen gizarte batean; bestetik, pandemiaren ondoriozko krisiak Justizia efizienteagoa eskatzen du. Kudeaketa hobetzeko aukera dago, datuetan oinarrituta, prozesu efizienteagoak eta eskuragarriagoak eginda. Ekarpinak egin behar dira Zuzenbide Estatuaren hobekuntzarako, eraldaketaren ondorioz legegintza-jarduera puri-purian dagoen honetan.

Testuinguru konplexu honek Justiziaren Zerbitzu Publikoa eraldatzeko aukera ematen du.⁸

Inkestari erantzun dioten kolektibo guztiak bat datoz: COVID-19aren osasun-krisiak eragin dituen erreformetarako, ezinbestekoa da ahalik azkarren ezartzea teknologia modernizatzeko neurriak. COVIDaren ondoko suspertze eta erresilientziarako planeko Europako funtsek hobera egiteko aukera ematen dute.

⁸ Justicia 2030. JM



4. Diagnostikoa. AMIA ondorioak

AHULEZIAK

- Ez da lortu prozedura judizial guztietan espediente judizial elektronikoa erabili ahal izatea.
- JAKo prozesuetarako soluzio teknologiko berriak ezartzeko, ezinbestekoa da araua aldatzea. Araudia teknikaren atzetik dabil eta eraldaketa moteldu dezake.
- Kudeaketa prozesaleko sistema desberdinak, eta haien arteko elkarreragingarritasunik ez.

MEHATXUAK

- Baliteke pertsona batzuk uzkur izatea lan-modu berrietara moldatzera.
- Herritar behartsuenen arrakala digitala handitzeak arriskuak ekar ditzake.
- Datuen segurtasunerako mehatxuak.
- Pandemiaren ondorioz erabakiak presaka hartu behar izatea.

INDARGUNEAK

- JAKo pertsonak uste dute justizia digitalizatzea beharrezkoa dela.
- Egoitza Judizial Elektronikoa sortuta eta lanean.
- Azpiegitura BATERA sisteman integratuta.
- Zerbitzu batzuk jardunean eta balorazio onarekin: erabiltzaileen arreta, hitzordua, ...

AUKERAK

- Aurrerapenak adimen artifizialean, eta teknologia oso garatuak beste arlo batzuetan, eta JAn aplika daitezke.
- Europar Batasunaren funtsak 2021-2026 aldirako, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren barruan.
- Justizia Ministerioaren eta AEen arteko kobernanzarako sistema berria, berehalako legeria-erreformak eta plan eta programa berriak eragingo dituen.



5. Misioa, 2026 ikuspegia eta printzipioak.

5.1. JDP_2021-2026ren misioa.

01

EAEko Justizia Administrazioak informazio-sistema, zerbitzu teknologiko eta komunikazio-sistema aurreratuak eta fidagarriak edukitzea,

02

bere prozesuak eta lanak erraztu, eta eraginkorrago izateko aukera emango diotenak,

03

justiziaren zerbitzu publikoa erosoago eta azkarrago emateko, gizartearen beharrian aldakorretara moldatzeko moduan.



5.2. Ikuspegia: JDP_2021-2026

Euskadiko Justizia Administrazioak onura hartzen du teknologia digitalak eskaintzen dituen aukeretatik:

01

Funtzio jurisdikzionalak hauek hartu behar ditu oinarri: prozedura azkarragoak, epe laburrak, espediente judizial elektroniko guztiz operatiboa, eta epaileek azkar eskuratzea beren ebazpenak prestatzeko behar dituzten erreferentzia juridikoak;


02

Zerbitzu publiko irisgarria, gardena eta abegikorra sistema judiziala erabiltzen duten pertsonentzat, elebiduna eta inklusiboa. Baliagarri dauden zerbitzu judizialen katalogoa eta justizia-karpeta, Egoitza Judizial Elektronikotik eta justizia.eus ataritik eskuratu daiteke. Bideokonferentzia-sistema eta sistema telematiko lagungarriekin ikustaldiak eta jarduketa judizialak bertaratu gabe egin ahal izateko;

03

Teknologia eta sistema digitalei buruzko prestakuntza duten pertsonak, berrikuntzara irekiak, egitekoak hobeto banatzen eta kontrolatzen dituztenak, eta antolamendu eraginkorra, berdintasunean oinarritua, mugikortasuna ahalbidetzen duena.

5.3. JDP 2021-2026ren printzipio eratzailleak





5.4. JDP 2021-2026: mapa



JAko pertsona eta erakunde erabiltzaileak

herritarrak



JAre
langileak

eragile
juridikoak



* [Storyset](#)-en ilustrazioak



6. JDP 2021-2026ren Ekintza Plana

6.1. Ildo estrategikoak Deskripzioa eta helburuak

| | Izena | Deskripzioa | Helburuak |
|------------|--|--|---|
| IE1 | EJE. Espediente judizial elektronikoa | Eragile juridikoekin elkarlanean, espediente judizial eta fiskal elektronikoa ezartzea, Nafarroako Gobernuak lagatako AVANTIUS informazio-sistema oinarritzat hartuta. | <ul style="list-style-type: none"> • Guztiz ezartzea espediente judizial eta fiskal elektronikoa, funtzionala eta bi hizkuntzetan, jurisdikzio guztietan, AMEIn eta Fiskaltzan, Kudeaketa Prozesala eta Profesionalen Ataria moduluekin, erabat elkarreragingarria sistema guztiarekin (PNJ, CENDOJ, SIRAJ, INSIDE, LEXNET,...). • Paperaren erabilera % 50 murriztea. |
| IE2 | Jarduketa eta judizio digitalak | Ikustaldiak, jarduketa judizialak eta beste jarduketa batzuk bertaratu gabe egiteko behar diren bideokonferentzia eta bideograbazio sistemak aztertzea, hautatzea eta ezartzea. | <ul style="list-style-type: none"> • Ikustaldiak grabatzeko sistema, urrunetik parte hartzeko funtzionaltasun berriekin eta bateragarria beste sistema batzuekin, berritua eta ezarrita. • Bideokonferentziak egiteko aplikazioak ekipamendu eramangarrietan instalatuta, telelana egin ahal izateko. |
| IE3 | Zerbitzu digitalak garatzea | IJZk emango dituen zerbitzuen katalogoa prestatzea eta garatzea, bai eta haien balorazioa neurtzeko eta jarraipena egiteko sistema bat eta inklusio digitalerako plana ere. Horrez gainera, justizia.eus ataria berritzea, hitzordu-sistemak sendotzea eta Egoitza Judizial Elektronikoa garatzea. | <ul style="list-style-type: none"> • Barruko zein kanpoko eragile juridikoek IJZk ematen dituen zerbitzuak ezagutzea eta erabiltzea. • Eragile juridikoek eta pertsona eta erakunde erabiltzaileek zerbitzu digitalez ematen duten balorazioa hobea izatea. • Adineko pertsona gehiagok ezagutzea eta erabiltzea JArekiko harremanetarako sistema digitalak. • justizia.eus web orria eguneratuta egotea eta Eusko Jaurlaritzaren irizpide korporatiboetara moldatzea. • Egoitza Judizial Elektronikoko zerbitzu judizial digitalak oraingoak halako hiru izatea. • Justiziaren zorroa ezartzea. • Hitzorduaren sistema gero eta gehiago erabiltzea. |



| | Izena | Deskripzioa | Helburuak |
|------------|--|---|---|
| IE4 | JAKo pertsonak eremu digitalean | Behar diren jarduketak egitea epaileek, fiskalek, JALek eta JAKo gainerako langileek uler dezaten IKTak ezinbestekoak direla beren lanean aritzeko. | <ul style="list-style-type: none"> • Aipatutako pertsona horiek guztiek trebakuntza eta informazioa jasotzea, bertatik bertara zein linean. • Erabiltzaileei arreta emateko sistema, eta, horren indargarri, tutoretzak in-situ. • Lan-ekipamenduak JAKo langileen % 80rentzat, urrunetik lan egin ahal izateko. |
| IE5 | Justizia berritzailea | Elkarlanean aritzeko akordioa, honako eremu hauetan AA eta puntako beste teknologia batzuk erabiltzen hasteko kontzeptu-probak edota proiektu pilotuak abian jartzeko: audioa testu bihurtzea, itzulpen automatikoa, kontsulta juridikoak, orientabideak justiziapekoiei eta profesionalei, epaileei laguntzea erabakiak hartzen eta ebazpenak eta epaiak idazten, prozedurak izapidetzea eta bulego judizialaren zuzendaritza eta kudeaketa. | <ul style="list-style-type: none"> • kustaldien grabazioak testu bihurtzeko funtzionalitatea kudeatzaile prozesalean txertatuta (lehenengo JustiziaBat-en eta gero EJE berrian). • Itzultzaile neuronal judiziala erabilgarri edukitzea JAKo langileek, eta geroago baita kanpoko eragile juridikoek eta justiziarekin harremanetan izaten diren erakundeek eta pertsonak ere, euskara gehiago erabiltzeko. • 5 kontzeptu-proba edo proiektu pilotu egitea AAekin. • Gatazkak konpontzeko lineako plataforma garatzen hastea (ODR). |
| IE6 | Justizia datuetan | EJEa eta ezarritako gainerako informazio-sistemak eta aplikazioak erabiltzea datuak biltzeko, haietaz baliatuz estatistika judizialak egiteko, erabakiak errazago hartzeko eta informazioa emateko nornahik eskuratzeko moduko formatu batean. | <ul style="list-style-type: none"> • Estatistika judizialak modu automatikoan egitea. • Erabakiak hartzeko informazioa biltzeko sistema erabilgarri egotea. • EAEko justiziaren arloko datu nagusiak justizia.eus atarian agertzea modu ulergarrian. |



| | Izena | Deskripzioa | Helburuak |
|------------|--|--|---|
| IE7 | Azpiegitura hobek | Batera zerbitzuen katalogoa eta Eusko Jaurlaritzaren estandar teknologikoak erreferentziatzat harturik, azpiegitura, komunikazio eta lanpostuetako soluzioak eta zerbitzuak eguneratzea. Horren bidez, justizia-zerbitzua ona, segurua eta etengabea izatea lortuko da. | <ul style="list-style-type: none"> • Azpiegituretako soluzioak eta zerbitzuak eguneratzea. • Komunikazioetako soluzioak eta zerbitzuak eguneratzea. • Lanpostuetako soluzioak eta zerbitzuak eguneratzea. |
| IE8 | Informazio judizialaren segurtasuna eta datuen babesa | Informazio judizial elektronikoaren segurtasun-politika eguneratzea (IJESP) eta datu pertsonalak babesteko jardunbide egokiak ezartzea, honako hauekin elkarlanean: BJKN, JM, AJEET, IKTZ, EJIE, epaileak, fiskaltza eta EAeko Datuak Babesteko Ordezkarria. | <ul style="list-style-type: none"> • Arriskuen ebaluazioa egitea eta neurri zuzentzaileak ezartzea. • Tratamendu Jardueren Erregistroa (TJE) eguneratzea, segurtasun-plana prestatzea eta neurriak ezartzea. • JAko langileek datuen babesari buruzko araudia eta jardunbide egokiak ezagutzea eta aplikatzea. |
| IE9 | Informazio judizialaren segurtasuna eta datuen babesa IJZren antolamendua eguneratzea | SOSIren egungo antolamendua eguneratzeaz hausnartzea eta, bidezkoa bada, haren neurria eta egitura eta zuzeneko zerbitzuen eredu ezartzeko proposamena egitea, bitarteko propioaren bidez (EJIE) eta enpresen bidez, kudeaketa aurreratuan oinarritutako funtzionamendua zehaztuz. | <ul style="list-style-type: none"> • IJZko langileak prestatuta eta motibatuta egotea. • Zerbitzu-eredu berria, egungo beharrienei erantzuteko modukoa. • Sistema gaituta egotea eragile juridiko nagusiekin, AJEETrekin eta IKTZrekin. |







6.2. Proiektuak ildo estrategikoaren arabaera

| JDP 2021-2026. ILDO ESTRATEGIKOAK. PROIEKTUAK | |
|--|--|
| | IE1. Espediente judicial elektronikoa (EJE) |
| | P01. Jarduketak gaur egun trantsizioan dauden sistemetan (JustiziaBat-JustiziaSip-JustizialkusBI, Justizia.eus eta EAEko Justiziaren arloko gainerako aplikazioak) |
| | P02. Hitzarmena Nafarroako Gobernuarekin AVANTIUS sistema lagatzeko: izapidetzea eta sinatzea |
| | P03. EJE: aurreko lanak |
| | P04. EJEa faseka ezartzea |
| | P05. Garapen zuzentzaileen eta bilakaera-garapenen plangintza eta hasiera (elkarreragingarritasun-doikuntzak barne) |
| | IE2. Jarduketa eta judizio digitalak |
| | P06. EJEarekin integratutako bidegrabazio-bideokonferentzien sistema sendotzea |
| | P07. Bideokonferentzia bidezko jarduketa judicial digitalak sustatzea |
| | P08. Judizio digitalak egiteko plan pilotua |
| | IE3 Zerbitzu digitalak garatzea |
| | P09. IJZk emandako zerbitzuen katalogoa egitea eta haien erabiltzaileen esperientziaren balorazio sistematikoa egitea, taldeka |
| | P10. Inklusio digitalaren plana, irisgarritasuna erraztu, eta arrakala digitala ezabatzeko |
| | P11. Justizia.eus berritzeko lanak amaitzea |
| | P12. Egoitza Judicial Elektronikoa eta Justiziaren Zorroa EJEarekin integratuta garatzea |
| P13. Hitzorduaren sistema sendotzea | |
| | IE4. JAKO pertsonak eremu digitalean |
| | P14. Harrera Digitalaren Plana |
| | P15. Trebakuntza: online eta presentziala |
| | P16. Urrunetik lan egiteko plana (telelana) |
| P17. Erabiltzaileei arreta egiteko eredu zehaztea eta ezartzea | |
| | IE5. Justizia berritzailea |
| | P18. Bideokonferentzietako audioak testu bihurtzea |
| | P19. Itzultzaile neuronal judiciala |
| | P20. EAEko JArentzat interesgarriak izan litezkeen berrikuntzako proiektu pilotuen katalogoa egitea elkarlanean |
| | P21. Egin litezkeen proiektu berritzaileen inbentarioan lehenetsitako proiektu pilotuak garatzea |
| | P22. Gatazkak ebazteko ODR sistema alternatibo baten bideragarritasuna aztertzea eta, bidezkoa bada, garatzea eta ezartzea |

* [Storyset](#)-en ilustrazioak




JDP 2021-2026. ILDO ESTRATEGIKOAK. PROIEKTUAK

| | |
|---|---|
|  | <p>IE6. Justizia datuetan</p> <p>P23. Estatistika eta datu judizial automatizatuak</p> <p>P24. Erabakiak hartzeko informazio-sistema</p> <p>P25. Justizia gardena. Justiziaren inguruko datu eskuragarriak eta erraz ulertzeko modukoak</p> <p>P26. Hausnarketa Justiziako Open Datari buruz</p> |
|  | <p>IE7. Azpiegitura hobeak</p> <p>P27. Eusko Jaurlaritzaren politika korporatiboetara eta BATERA zerbitzuen katalogora doitzea</p> <p>P28. Azpiegituraren arloko soluzioak eta zerbitzuak eguneratzea</p> <p>P29. Komunikazioen arloko soluzioak eta zerbitzuak eguneratzea</p> <p>P30. Lanpostuetako soluzioak eta zerbitzuak eguneratzea</p> |
|  | <p>IE8. Informazio judizialaren segurtasuna eta datuen babesa</p> <p>P31. Informazio judizial elektronikoaren segurtasun-politika (UESP) eguneratzea eta betetzea</p> <p>P32. Egoera berrira moldatzea eta informazio judizialeko datu pertsonalen babesaren arloko jardunbide egokiak ezartzea</p> |
|  | <p>IE9. Informazio Judizialaren Zerbitzuaren (IJZ) antolamendua eguneratzea</p> <p>P33. Hausnarketa egungo antolamendu-egituraz eta haren funtzionamenduaz</p> <p>P34. Plangintzan, koordinazioan, informazioan, motibazioan, trebakuntzan eta ebaluazioan oinarritutako zerbitzua</p> <p>P35. IJZren harreman-sistema egituratua</p> |

* [Storyset](#)-en ilustrazioak



6.3. Ezarpenaren kronograma





6.4. Adierazleen taula

| Proiektua | Adierazlea |
|--|--|
| IE1. Espediente judicial elektronikoa (EJE) | |
| P01. Jarduketak gaur egun trantsizioan dauden sistemetan (JustiziaBat-JustiziaSip-JustizialkusBI, Justizia.eus eta EAeko Justiziaren arloko gainerako aplikazioak) | Sinatutako kontratuak (2021eko 4. hiruh.). |
| | Akordioa eragile juridikoekin garatu beharreko eta geldiaraziko direnei buruz (2021eko 4. hiruh.). |
| P02. Hitzarmena Nafarroako Gobernuarekin AVANTIUS sistema lagatzeko: izapidetzea eta sinatzea | Hitzarmena sinatuta (2021eko urria). |
| P03. EJE: aurreko lanak | Funtzionalitateak alderatzeko taula duen dokumentua (2021eko 4. hiruh.). |
| | Epealdiaren barruan egindako garapen-parametrizazioen % guztira aurreikusitako aldean (% 80tik gora) |
| P04. EJEa faseka ezartzea | A FASEan egindako lanak, probak barne (2021eko 3. hiruh.). |
| | Migrazioa prestatzeko lanak eta probak eginda (2022ko 3. hiruh.). |
| P05. Garapen zuzentzaileen eta bilakaera-garapenen plangintza eta hasiera (elkarreragingarritasun-doikuntzak barne) | Enkargatu edota kontratatutako garapen zuzentzailea (2023ko 1. hiruh.). |
| | Enkargatu edota kontratatutako bilakaera-garapena (2023ko 1. hiruh.). |
| | Ezarritako bilakaera-garapenen % aurreikusitako gutzirako aldean (% 70etik gora). |
| | Mantentze-lan zuzentzailearen erabiltzaileen batez besteko asebetetasuna (3,5etik gora, gehienez 5). |
| IE2. Jarduketa eta judizio digitalak | |
| P6. EJEarekin integratutako bidegrabazio-bideokonferentzien sistema sendotzea | Txostena eginda (2023ko 1. hiruh.). |
| | Bidegrabazio-bideokonferentzia sistema kontratatuta eta ezarrita (2024ko urtarrila). |
| P7. Bideokonferentzia bidezko jarduketa judicial digitalak sustatzea | Katalogoa osoturik (2023ko 4. hiruh.). |
| | Modu digitalean egin daitezkeen jarduketa judicial berrien kopurua. |
| P8. Judizio digitalak egiteko plan pilotua | Dokumentua eginda (2025eko 1. hiruh.). |
| | Proiektu pilotua eginda (2026ko 1. hiruh.). |



| Proiektua | Adierazlea |
|---|---|
| IE3 Zerbitzu digitalak garatzea | |
| P9. IJZk emandako zerbitzuen katalogoa egitea eta haien erabiltzaileen esperientziaren balorazio sistematikoa egitea, taldeka | Zerbitzuen katalogoa euskadi.eus atarian (2023ko 3. hiruh.). |
| | Balorazioa / asebetetasuna neurtzeko eta jarraipena egiteko sistemaren dokumentua (2023ko 3. hiruh.). |
| | IJZren zerbitzuekiko batez besteko asebetetasuna erabiltzaileen artean (3,5etik gora, guztira 5). |
| P10. Inklusio digitalaren plana, irisgarritasuna erraztu, eta arrakala digitala ezabatzeko | Adinekoen alfabetatze digitalerako planean parte hartzen dutenen kopurua. |
| | Egiten diren berriazko prestakuntza-ekintzen kopurua. |
| P11. Justizia.eus berritzeko lanak amaitzea | Interneten aritzeko eredia zehaztuta eta ezarrita (2021eko 4. hiruh.) |
| | JustiziaEus webguneko atari guztiak ezarrita eta jardunean (2021eko 4. hiruh.). |
| P12. Egoitza Judizial Elektronikoa eta Justiziaren Zorroa EJEarekin integratuta garatzea | Zerbitzuen Zerrenda eginda (2023ko 4. hiruh.). |
| | Ezarritako zerbitzu berrien kopurua. |
| | Justiziaren Zorroa ezarrita (2024ko 4. hiruh.). |
| P13. Hitzorduen sistema sendotzea | Hitzorduen aplikazioa erabiltzen duten pertsonen batez besteko asebetetasuna (3,5etik gora, guztira 5). Egindako hobekuntza funtzionalen kopurua. |
| IE4. JAko pertsonak eremu digitalean | |
| P14. Harrera Digitalaren Plana | Beharriazko buruzko azterlana amaituta (2023ko 2. hiruh.). |
| | Egokitu eta eguneratutako eskuliburuaren kopurua. |
| | Harrera digitalaren sisteman sartzen diren pertsonen batez besteko asebetetasuna (> 3,5, guztira 5). |
| P15. Trebakuntza: online eta presentziala | JAko langileen trebakuntza digitalaren plana eginda (2024ko 1. hiruh.). |
| | JAko langileek trebakuntza-ikastaro edo -jardueraz adierazitako batez besteko balorazioa (> 3,5, gehienez 5). |
| | Kanpoko eragile juridikoek trebakuntzako ikastaroez edo jardueraz adierazitako batez besteko balorazioa (> 3,5, gehienez 5). |
| P16. Urrunetik lan egiteko plana (teledana) | Enkarguak edota kontratuak ezarritako epealdietan eginda (2022ko 4. hiruh., 2023ko 4. hiruh., 2024ko 4. hiruh. eta 2025eko 4. hiruh.). |
| | Urtean zenbat gorabehera bideratu diren erabiltzaileen arretaren zerbitzura. |
| P17. Erabiltzaileei arreta egiteko eredia zehaztea eta ezartzea | Eredua onetsita (2021eko 3. hiruh.). |
| | Urtean aurkeztutako gorabeheretatik konpondu direnen % (% 90etik gora). |
| | Erabiltzaileen Arretaren Zerbitzuen batez besteko balorazioa (3,5etik gora, guztira 5). |



| Proiektua | Adierazlea |
|--|--|
| IE5. Justizia Innovadora | |
| P18. Bideokonferentzietako audioak testu bihurtzeko proiektua EJEarekin integratuta garatzea eta ezartzea | Sortutako testuaren zehaztasunaren % (neurketa WER Word Error Rate sistemaz eginda: % 87tik gora). EJE-Avantius-ekin integratuta (2023ko 3. hiruh.). Urtean tresna hau erabiltzen dutenen kopurua. |
| P19. Itzultzaile neuronal judiziala EJEarekin integratuta garatzea eta ezartzea | Itzultzaile neuronal judiziala garatuta eta ezarrita (2023ko 2. hiruh.). Urteko erabiltzaileen eta erabilpenen kopuruak. Euskaraz aurkeztutako demanden eta idazkien gehikuntzaren % (% 20tik gora). |
| P20. EAeko JArentzat interesgarriak izan litezkeen berrikuntzako proiektu pilotuen katalogoa egitea elkarlanean | Barruko eragile juridiko nagusiekin elkarlanean adostutako inbentarioa eginda (2024ko 2. hiruh.). |
| P21. Egin litezkeen proiektu berritzaileen inbentarioan lehenetsitako proiektu pilotuak garatzea | Egindako fitxen kopurua. Kontzeptu-proba edo proba pilotua egindako proiektuen kopurua. Ezarritako proiektuen kopurua. |
| P22. Gatazkak ebazteko ODR sistema alternatibo baten bideragarritasuna aztertzea eta, bidezkoa bada, garatzea eta ezartzea | Bideragarritasun-azterlana eginda (2024ko 4. hiruh.). ODR sistemaren lehen modulua ezartzea (2025eko 4. hiruh.). |
| IE6. Justizia datuetan | |
| P23. Estatistika eta datu judizial automatizatuak | Estatistika-sistema automatizatua ezarrita (2023ko 4. hiruh.). |
| P24. Erabakiak hartzeko informazio-sistema | Beharriaz buruzko txostena eta adierazleen taula eginda (2024ko 4. hiruh.). Adierazle judizialen araberrako informazio-sistema ezarrita (2025eko 4. hiruh.). |
| P25. Justizia gardena. Justiziaren inguruko datu eskuragarriak eta ulertzeko modukoak | Erabakia hartuta (datu interesgarriak, aurkezteko modua, kanalak eta aldizkakotasuna) (2024ko 4. hiruh.). justizia.eus atarian argitaratzea EAeko justizia-zerbitzuaren inguruko datu nagusiak (2025eko 4. hiruh.). Herritarren batez besteko asebetetasuna EAeko justiziaren inguruko informazioarekin (3,5etik gora, guztira 5). |
| P26. Hausnarketa Justiziako Open Datari buruz | Ideen lehiaketa eginda (2025eko 4. hiruh.). |




| Proiektua | Indicador |
|--|--|
| IE7. Azpiegitura hobeak | |
| P27. Eusko Jaurlaritzaren politika korporatiboetara eta BATERA zerbitzuen katalogora doitzea | Egoerari buruzko txostena eginda (2021eko 4. hiruh.). |
| | Beharrianen dokumentua (urte anitzeko aurrekontuarekin) eginda (2021eko 4. hiruh.). |
| P28. Azpiegituraren arloko soluzioak eta zerbitzuak eguneratzea | EJE berrirako ekipamenduak hornitzea (2022ko 1. hiruh.). |
| | Azpiegitura erosita edo zerbitzuak abian ezarritako epealdiaren barruan (2022ko 4. hiruh., 2023ko 4. hiruh., 2024ko 4. hiruh., 2025eko 4. hiruh. eta 2026ko 4. hiruh.). |
| P29. Komunikazioen arloko soluzioak eta zerbitzuak eguneratzea | Komunikazio-azpiegitura erosita edo zerbitzuak abian ezarritako epealdiaren barruan (2022ko 4. hiruh., 2023ko 4. hiruh., 2024ko 4. hiruh., 2025eko 4. hiruh. eta 2026ko 4. hiruh.). |
| P30. Lanpostuetako soluzioak eta zerbitzuak eguneratzea | Ekipamendu eramangarri berriak eta haien osagarriak abian jartzea ezarritako egutegiaren arabera (2022ko 4. hiruh., 2023ko 4. hiruh., 2024ko 4. hiruh., 2025eko 4. hiruh. eta 2026ko 4. hiruh.). |
| IE8. Informazio judizialaren segurtasuna eta datuen babesa | |
| P31. Informazio judizial elektronikoaren segurtasun-politika (IJESP) eguneratzea eta betetzea | Segurtasun-politika zehaztuta (2022ko 4. hiruh.). |
| | Auditoretzako txostena eginda (2023ko 2. hiruh.). |
| | Auditoretzan proposatutako neurrietatik aplikatu direnen % (% 80tik gora). |
| P32. Egoera berrira moldatzea eta informazio judizialeko datu pertsonalen babesaren arloko jardunbide egokiak ezartzea | TJE eginda (2022ko 2. hiruh.). |
| | Arriskuen analisisa eta kudeaketa eginda (2022ko 4. hiruh.). |
| | Arriskuen analisisan proposatutako neurri zuzentzaileetatik ezarri direnen % (% 80tik gora). |
| | Egindako informazio-saioen edo trebakuntza-saioen kopurua. |
| IE9. Informazio Judizialaren Zerbitzuaren (IJZ) antolamendua eguneratzea | |
| P33. Hausnarketa egungo antolamendu-egituraz eta haren funtzionamenduz | Hausnarketa eginda eta erabakia hartuta (2023ko 1. hiruh.). |
| | Izapide administratiboak eginda (2024ko 1. hiruh.). |
| P34. Plangintzan, koordinazioan, informazioan, motibazioan, trebakuntzan eta ebaluazioan oinarritutako zerbitzua | Autoebaluazioa eta hobekuntzarako plana eginda (2023ko 4. hiruh.). |
| | Hobekuntzarako planeko proposamenetatik aplikatutakoen % (2026ko 4. hiruh.). |
| | IJZko langileen batez besteko asebetetasuna zerbitzuaren jardunarekin (3,5etik gora, guztira 5). |
| P35. IJZren harreman-sistema egituratua | Harremanen protokoloa onetsita (2024ko 1. hiruh.). |
| | Talde bakoitzarekin egindako koordinazio eta jarraipeneko bileren kopurua. |



7. Plan hau kudeatzeko eredia. Gobernantza

7.1. Kudeaketa-eredua

Kudeaketa-ereduaren oinarriak honako hauek dira:





7.2. Antolamendu-eredua. Organoak eta proiektu-taldeak.

| Taldea | Osaera | Funtzioak |
|--|--|---|
| Justizia Sailburuordetzako Zuzendaritza eta Koordinazio Batzordea | <ul style="list-style-type: none"> • Justiziako Sailburuordea eta hiru Zuzendariak | <ul style="list-style-type: none"> • plana bultzatzea eta jarraipena egitea, • proiektuak noraino garatu eta bete diren aztertzea, • desbideratzeak eta araudian edo gizartean gertatzen diren aldaketen arabera beharko diren eguneratzeak aurreikustea eta, behar denean, planaren aldaketak onestea, • jardun-estrategiak zehaztea, eta • gertatzen diren gatazkak konpontzea eta gorabehera handiak kudeatzea. |
| Zerbitzu Zuzendaritza | <ul style="list-style-type: none"> • Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Zerbitzu Zuzendaritza | <ul style="list-style-type: none"> • laguntza juridikoa, laguntza materiala, kontratazioaren inguruko laguntza eta langileen kudeaketaren inguruko laguntza |




| Taldea | Osaera | Funtzioak |
|---|---|---|
| JDP 2021-2026 planaren jarraipenerako JAren Batzorde Mistoa | <ul style="list-style-type: none"> • Justizia Sailburuordetzaren sei ordezkari: Justizia sailburuordea; Justiziaren arloko zuzendari mailako hiru pertsona, JDP 2021-2026 planaren koordinatzaile teknikoa (idazkari ariko da) eta PPKZko pertsona bat. • Epaileen hiru ordezkari; Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Gobernu Salak izendatuko ditu eta bat sala horretako presidentea izango da. • Fiskaltzaren hiru ordezkari; Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltza Nagusiak izendatuko ditu eta bat fiskal nagusia izango da. • JAL kidegoaren hiru ordezkari; Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Gobernu Idazkaritzak izendatuko ditu eta bat idazkaritza horretako titularra izango da. | <ul style="list-style-type: none"> • proiektuaren barne-komunikazioa ziurtatzea, • planaren jarraipenari buruzko usteko txostenen eta planaren aldaketen berri edukitzea, eta, behar denean, bidezkoztat jotzen dituen proposamenak egitea, • proiektua kolektiboen artean hedatzen laguntzea, eta • kolektiboen arteko elkarlana koordinatzea. |
| JDP 2021-2026 planaren jarraipenerako Kanpoko Eragile Juridikoen Batzorde Mistoa | <ul style="list-style-type: none"> • Justizia Sailburuordetzaren sei ordezkari: Justizia sailburuordea; Justiziaren arloko zuzendari mailako hiru pertsona, JDP 2021-2026 planaren koordinatzaile teknikoa (idazkari ariko da) eta PPKZko pertsona bat. • Abokatuen hiru ordezkari, prokuradoreen hiru ordezkari eta gizarte-graduatuaren hiru ordezkari (bat lurraldeko). | <ul style="list-style-type: none"> • Aurreko organoaren egiteko berak edukiko ditu bertan dauden kolektiboei dagokienez. |
| Batzorde Sindikala (Paritarioaren saioa) | <ul style="list-style-type: none"> • Batzorde Paritarioarena | <ul style="list-style-type: none"> • Aurreko organoaren egiteko berak edukiko ditu ordezkatzeko dituen langile-kolektiboei dagokienez. |



| Taldea | Osaera | Funtzioak |
|---|---|--|
| JDP 2021-2026 planaren koordinatzaile teknikoa | <ul style="list-style-type: none"> Planaren burutzapenaren arduradun teknikoa IJZko pertsona bat izango da. Honako hauek izango ditu zeregin nagusi. | <ul style="list-style-type: none"> Planaren alderdi teknikoen koordinazioa eta jarraipena, planaren jarraipenari eta ebaluazioari buruzko txostenak egitea, planaren jarraipen operatiboari dagozkion edukiak egitea eta jarduerak kudeatzea, eta proiektu-taldeak bateratzea. |
| Proiektu-taldeak | <ul style="list-style-type: none"> Proiektu bakoitza burutzeko arduradun bat egongo da, IKZkoa (kasu bereziren batean PPKZkoa), bai eta izendatutako pertsona-talde bat ere. Ahaleginak egingo dira taldean proiektuaren eraginpeko arlo guztietako pertsonak egoteko. | <ul style="list-style-type: none"> koordinazioa ziurtatzeko eta ezartzen den eremu guztietan behar bezala bete dadin. |



7.3. Jarraipena eta ebaluazioa eta eguneratzeak



GOARDIAKO EPAITEGIA
JUZGADO DE GUARDIA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES